

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

3731/2022 Ebazpena, urriaren 20koa, onespena ematen diena salgaien eta bidaiarien errepideko garraioko jarduerak egiteko lanbide gaitasuneko agiria eskuratzeko proben deialdiari eta probak berrikusteko epaimahaiari

Lanbide gaitasuna da errepideko garraiolari lanbidean jarduteko beharrezkoa den betekizunetako bat, hala xedatzen baitu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko urriaren 21eko 1071/2009 (EE) Erregelamenduak, errepideko garraiolari lanbidean jarduteko bete behar diren baldintzei buruzko arau komunak ezartzen dituenak. Erregelamenduaren 8. artikulua dioenez, interesdunek nahitaezko azterketa idatzi baten bidez frogatu behar dituzte eskatutako ezagutzak, eta azterketa hori ohiko bizilekua duten edo lan egiten duten estatu kidean egin behar dute.

Lurreko Garraioen Antolamenduaren uztailaren 30eko 16/1987 Legeak, uztailaren 4ko 9/2013 Legearen bidez egindako aldaketan, lanbide gaitasunaren betebeharra sartu zuen, eta Lurreko Garraioen Antolamenduaren Legearen Erregelamendua (aurrerantzean, LGAE) onesten duen irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretuak garatu du. Zehazki, II. eranskinak lanbide gaitasuneko agiria lortzeko araubidea zehazten du.

Arabako Foru Aldundiak, historikoki, errepideko garraioaren arloko eskubide eta eskumen multzo bat izan du, zeina indarrean dauden 1950eko martxoaren 9ko hitzarmenetan jaso baitzen; haren araubidea Estatuak errepide eta kable garraioko ahalmenak autonomia erki-degoei eskuordetzearen uztailaren 30eko 5/1987 Lege Organikoaren xedapen gehigarriaren bidez onartu eta babestu zen, eta zabaldu egin da, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendaren Ministerioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin errepideko garraioaren arloko foru eguneraketarako egindako hitzarmenaren bidez, zeina Batzar Nagusiek berretsi baitzuten azaroaren 10eko 23/2021 Foru Arauaren bidez. Eguneratze horren ondorioz, Arabako Foru Aldundiak bere gain hartu du lanbide gaitasuna eskuratu, egiaztatu eta kontrolatzeko eskumena, eta horren barruan sartzen dira egiaztapen probetarako deialdia egitea eta probak egitea, eta administrazio titulua ematea.

Bukatzeko, 2022ko ekainaren 20an, ebazpen bat eman zen, zeinaren bidez onespena ematen baitzaie salgaien eta bidaiarien errepideko garraioko jarduerak egiteko lanbide gaitasuneko agiria eskuratzeko proben deialdiari eta probak berrikusteko epaimahaiari. Garraioak Ikuskatzeko Zerbitzuko langileen artean aldaketak izan direnez, beharrezkoa da aurreko ebazpena ordeztzea, beste berrikuspen epaimahai bat izendatzeko.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuak, zeinaren bidez Arabako Foru Aldundiaren sailak ezarri baitziren 2019-2023 agintaldirako, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari esleitzen dizkio garraio arloko eskumenak. Halaber, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 22ko 47/2019 Foru Dekretuaren 18. artikulua Mugikortasun eta Garraio zuzendariari esleitzen dizkio saileko eginkizun eta jardun arloen eremuan araudiak ematen dizkion eskumenak. Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Onestea, Arabako Lurralde Historikoan, salgaien eta bidaiarien errepideko garraioko jarduerak egiteko lanbide gaitasuneko agiria eskuratzeko proben deialdi ireki eta iraunkorra.

Azterketak egin nahi dituztenek Araban izan beharko dute ohiko bizilekua, LGAEren II. eranskinean eskatutako baldintzak bete beharko dituzte, azterketa eskubideengatiko tasa ordaindu beharko dute eta Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa horretarako sortutako berriazko izapidearen bidez izena eman beharko dute. Izena emateko epea ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da. Tasa ordaintzeak ez du inola ere ordezkaten proban izena emateko betebeharra.

Azterketak Arabako Foru Aldundiaren La Blanca eraikinean egingo dira (Probintzia plaza 4, barrualdea, Gasteiz), eta azterketa egin baino gutxienez 10 egun balioudun lehenago deituko da. Probak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1071/2009 (EE) Erregelamenduan eta LGAEren II. eranskinean ezarritakoaren arabera arautuko dira.

Bigarrena. Azterketak berrikusteko epaimahaiko kideak izendatzea eta berrikuspen prozedura onestea:

Berrikuspen epaimahaia:

Epaimahaiburua: Carlos Fernández de Betoño Hernández.

Idazkaria: Rubén Muñoz Gómez.

Epaimahaikideak: Juan Antonio Bernardo Prada, Begoña Díaz Aisa eta Beatriz Muñoz Murguiondo.

Ordezko epaimahaiburua: Beatriz Muñoz Murguiondo.

Ordezko idazkaria: Amaia Pérez de Arrilucea Osa.

Ordezko epaimahaikideak: Ainhoa Asin Gil, Ángel Martínez de Antoñana Ruiz de Azua eta Rubén Muñoz Gómez.

Izangai batek galdera baten edo azken kalifikazioaren aurka erreklamazioa jarri nahi badu, idatziz egin beharko du, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa bidez, hamar egun baliouduneko epean, emaitzak argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena. Indarrik gabe uztea ekainaren 20ko 2274/2022 Ebazpena, onespena ematen diona salgaien eta bidaiarien errepideko garraioko jarduerak egiteko lanbide gaitasuneko agiria eskuratzeko proben deialdiari eta probak berrikusteko epaimahaiari.

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzeko agintzea.

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio bidea, eta, beraz, interesdunek gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahalko diote Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 20a

Mugikortasun eta Garraio zuzendaria
PATRICIA PÉREZ AGUIRRE